

Kudeaketari buruzko Txostena

1. Sarrera

2011. urtean zehar, Garbiker, a.b.ren jarduera 2010. urteko Txostenean adierazitako jarduera egitarauaren arabera egin da.

2. Garbiguneak

Garbikerrek kudeatutako 23 garbiguneetan 20 hondakin mota baino gehiago bildu dira: metalak, egurrak, papera eta kartoia, pilak, lerro zuria, lerro marroia, pneumatikoak, zaborrak, fluoreszenteak, karter-olioak, etxe-olioak, inausketa-hondarrak, sendagaiak, oihalak, ontziak, plastikoak, beira, tamaina handikoak, bateria-metagailuak, tonerrak, sakeleko telefonoak, DVD-CDak, VHS-kasetak eta merkuriozko termometroak.

Basauri, Gueñes, Sestao, Erandio, Durango, Markina eta Gernikako garbiguneetan, halaber, pintura edo disolbatzaile solido eta likidoak eta aerosolak batzen dira; baita pintura edo disolbatzaileak izan dituzten plastikozko eta metalezko ontziak ere.

Garbigune guztietan, jostailuen gaikako bilketa eta, ondoren, berrerabiltzeko edukiontziak egokitu dira. 2011. ekitaldian zehar, 19,9 tona jostailutik gora bildu ziren.

2009az geroztik, berrerabil daitezkeen materialak biltzera zuzenduriko etxolak jarri dira Erandio, Getxo, Santurtzi, Barakaldo, Durango, Derio eta Gernikako garbiguneetan.

2011. urtean zehar, 23 garbiguneek 314.822 pertsonari erabiltzailerik eman diete zerbitzua, hau da, 1.016 pertsonari egunero. Era berean, 52.933 tona hondakin jaso dira.

Linea zuriko, marroiko, pilen eta fluoreszenteen hondakin motak biltegiratu eta birziklategira heldu arteko garraiorako Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak Kudeatzeko Sistema Integratuekiko Lankidetzak Hitzarmenak indarrean mantentzen dira (fakturazioaren prezioa 150 €/tonakoa da linea marroirako, eta 160 €/tonakoa, linea zurirako).

Urtero egiten den bezeroen asebetetzearekiko inkestaren arabera, Garbigunearekiko asebetetze orokorra 8,3 bikainean dago (10etik). Inkestatuen %91,3k dio bere etxean ahal den guztia birziklatzen dela, eta langileen adeitasuna, instalazioen garbitasuna, ontzien eskuragarritasuna, ontzien kokapena eta bitartekoen erabilgarritasuna azpimarratu dute.

Informe de Gestión

1. Introducción

Durante el año 2011, la actividad de Garbiker, a.b. se ha desarrollado según el programa de actuaciones reseñado en la Memoria del año 2010.

2. Garbigunes

En los 23 Garbigunes gestionados por Garbiker se han recogido más de 20 tipos de residuos: metales, maderas, papel y cartón, pilas, línea blanca, línea marrón, neumáticos, escombros, fluorescentes, aceites de cárter, aceites domésticos, restos de podas, envases, plásticos, vidrio, voluminosos, baterías-acumuladores, tóners, teléfonos móviles, DVD-CDs, VHS-cassettes, juguetes y termómetros de mercurio.

En los Garbigunes de Basauri, Gueñes, Sestao, Erandio, Durango, Markina y Gernika también se recogen, pinturas y disolventes sólidos o líquidos y aerosoles, así como los envases metálicos y de plástico que hayan contenido pintura o disolventes.

También hay habilitados contenedores para la recogida selectiva y posterior reutilización de juguetes en todos los garbigunes. Durante 2011 se recogieron 19,9 toneladas de juguetes.

Desde 2009 hay habilitadas casetas destinadas a la recogida de materiales reutilizable en los garbigunes de Erandio, Getxo, Santurtzi, Barakaldo, Durango, Derio y Gernika.

A lo largo de 2011, los 23 garbigunes han dado servicio a 314.822 personas usuarias, lo que equivale a unas 1.016 personas/día. Se han recibido 52.933 toneladas de residuos.

Se mantienen vigentes los Convenios de Colaboración con los Sistemas Integrados de Gestión de Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos de línea blanca, línea marrón, pilas y fluorescentes, para almacenamiento y transporte de este tipo de residuos hasta el reciclador (precio de facturación 150 €/tonelada para línea marrón y 160 €/tonelada para la línea blanca).

Según la encuesta de satisfacción realizada anualmente, la satisfacción general con el garbigune se mantiene en un excelente 8,3 sobre 10 puntos. Un 91,3% de los encuestados afirman que en sus hogares se recicla todo lo posible, destacando la amabilidad del personal, la limpieza de las instalaciones, la accesibilidad y colocación de contenedores y la disponibilidad de medios.

AENORek berriro onartu du Zerbitzu-Gutuna, eta hartutako konpromisoak bete ditu.

3. Ontzi arinen gaikako bilketa

2011an, edukiontzi horiak jarritz jarraitu da 113 udalerritan: 108 Bizkaikoak ziren eta 5 Arabakoak, eta 698.147 biztanle biltzen dituzte guztira. 2011eko abenduaren 31n, 3.725 edukiontzi zeuden ezarrita guztira: 231 lurrazpian, 273 3 m³-koak, eta 3.221 3,5 m³-koak.

Apurtuta zeuden 147 edukiontzi eta erreta zeuden 132 edukiontzi ordezkatu dira. Udaletatik jasotako eskaerekin (120) eta zerbitzuan antzemandako beharrianekin (20) bat etorritik, 140 edukiontzi berri instalatu dira.

Bilketa-zerbitzu mota honetan ISO 14001 berritu egin da.

Edukiontzien garbiketa lanak, lehiaketaren esleipenduna den GSM enpresak egiten ditu.

Abenduaren 31ra arte 9.266.829 kg hondakin bildu dira guztira, 2010an baino %0,96 gutxiago.

Garbiker arduratzen da edukiontzi horietan utzitako hondakinak bildu eta Zornotzako Ontzi Sailkategi Gunera arte garraiatzeaz.

2011an bildutako ontzien hondakinen batz bestekoari dagokionez, biztanle bakoitzeko kopurua 13,27 kg/urtekoa da, hau da, 2010koa baino %0,46 gehiago.

4. Konpostegia

2010eko Abenduaren 27an, inausketa eta lorezaintza hondakinak jasotzen hasiak gara eta konpostegi gunearen jardura abiarazteari hasiera eman zitzaion. Abenduaren 31ra arte bildutako hondakinak 2.416 tona izan dira.

La Carta de Servicios ha sido nuevamente aprobada por AENOR con el cumplimiento de los compromisos adquiridos.

3. Recogida selectiva de envases ligeros

Durante 2011 se ha continuado con la colocación de contenedores amarillos en 113 municipios, 108 vizcaínos y 5 alaveses, con una población total de 698.147 habitantes. A 31 de diciembre de 2011, había colocados 3.725 contenedores en total, 231 soterrados, 273 de 3 m³ y 3.221 de 3,5 m³.

Se han sustituido 147 contenedores rotos y 132 quemados. Se han instalado 140 nuevos contenedores de acuerdo con las solicitudes recibidas de los ayuntamientos (120) y las necesidades detectadas en el servicio (20).

Se ha renovado la ISO 14001 en este servicio de recogida.

La limpieza de los contenedores la sigue realizando la empresa GSM, adjudicataria de dicho concurso.

La cantidad de Residuos recogidos, hasta el 31 de diciembre, ha sido de 9.266.829 kg., un 0,96 % menos que en 2010.

Garbiker es la encargada de la recogida y transporte hasta la Planta Clasificadora de Envases de Amorebieta de los residuos depositados en estos contenedores.

La cantidad media de residuos de envases recogida durante 2011 alcanza por habitante los 13,27 kg/año, lo que supone un incremento del 0,46% respecto a 2010.

4. Konpostegia

El 27 de diciembre de 2010 se empezó a recepcionar residuos de poda y jardinería y se inició la puesta en marcha de esta planta de compostaje. La cantidad de Residuos recogidos, hasta el 31 de diciembre, ha sido de 2.416 t.

5. Tratamendu Mekaniko Biologikorako Planta (TMB)

2010eko maiatzaren 3an, Bilboko Arraiz mendian, Armulaza inguruan, HHen Tratamendu Mekaniko Biologikoko Plantaren Betearazpen-, Eraikin- giltza eskuan eta Abiarazte-proiektua idazteko lehiaketa deitu zen.

Lehiaketa hori 2010eko irailean SUFI-PABISA CONSTRUCCIONES Y SERVICIOS ABEEri, hurrengo baldintzetan (prezio guztiak BEZik gabe dira) esleitu zitzaion:

1. aldaera: 41.203.039 € (CDR eskuratu gabe).

2. aldaera: 43.344.396 € (CDR eskuratuta).

Ustiapena

[4.371.210 € - <=90.000t] / [48,57€/t - <= 120.000t]
/ [46,71€/t - <=150.000t] / [45,78€/t - >150.000t]

Lanen iraupena: 29 hilabete

Aurreikusitako zabaltze-data: 2013ko apirila

1 aldaeraren kontratua 2010eko urrian izenpetu zen.
2. Aldaera egikaritzeko zabalketa 2011ko abenduan izenpetu zen.

Inguruaren hirigintza lanak 2010eko azaroaren amaieran egiten hasi ziren.

Azaroan, era berean, DOUEn T.M.B. Gunea eraikitze eta funtzionamenduan jartzeko segimendu eta kontrolerako (Project Management) laguntza teknikoko zerbitzuak kontratatze lehiaketa argitaratu zen.

Lehiaketa horren esleipena 2011ko otsailean egin zen guztira 500.000 eurotan (BEZ/g) eta IDEMA-INGEPLAN ABEEri egokitu zitzaion.

6. HHen hondakindegia kontrolatuen kudeaketa eta ustiapena

Garbikerrek kudeatu eta jada jardunean diren H.Hen Igorre eta Jatako 2 hondakindegia kontrolatuetan, abenduaren 31ra arte, 60.592 tona hondakin isuri dira.

5. Planta de Tratamiento Mecanico Biologico (T. M. B.)

El 3 de mayo de 2010, se convocó el concurso para la Redacción del Proyecto de Ejecución, Construcción llave en mano y Puesta en marcha de la Planta de Tratamiento Mecánico-Biológico de RU en área Armulaza, monte Arraiz, Bilbao.

Dicho concurso fue adjudicado en septiembre de 2010 a UTE: SUFI-PABISA CONSTRUCCIONES Y SERVICIOS en las siguientes condiciones (todos los precios son sin IVA):

Variante 1: 41.203.039 € (sin obtención de CSR).

Variante 2: 43.344.396 € (con obtención de CSR).

Explotación:

[4.371.210 € - <=90.000t] / [48,57€/t - <= 120.000t]
/ [46,71€/t - <=150.000t] / [45,78€/t - >150.000t]

Duración de las obras: 29 meses

Fecha de inauguración prevista: abril 2013

El contrato para la variante 1 se firmó en octubre de 2010. La ampliación para llevar a cabo la variante 2 se firmó en diciembre de 2011

Las obras de urbanización de la zona dieron comienzo a finales de noviembre 2010.

También en noviembre 2010 se publicó en el DOUE el concurso para el contrato de servicios de asistencia técnica para el seguimiento, supervisión y control (Project Management) de la construcción y puesta en funcionamiento de la Planta T.M.B.

La adjudicación de dicho concurso tuvo lugar en febrero de 2011 por un total de 500.000 euros (s/IVA) y correspondió a la UTE IDEMA-INGEPLAN

6. Gestión y Explotación de Depósitos Controlados de R.U.

En los 2 Depósitos controlados de R.U. en activo gestionados por Garbiker, Igorre y Jata, se han vertido, hasta el 31 de diciembre, la cantidad de 60.592 t.

Abenduaren 31ra arte guztira 50.519 tona hondakin tratatu dira eta horietatik 23.758 tona Gipuzkoako udalei dagozkie. Abenduaren 31ra arte, zisterna-garraio bidez Galindoko HUAra egindako lixibatuen isurketa 23.360 tonakoa izan da. Hondakindegian sortutako biogasaren aprobetxamenduari jarraitu da. 4.100 m²-ko aldi baterako itxiera egin da, lixibatuen ekoizpena murrizte aldera. Astelehenetik larunbatetara bitartean, goizeko txandako orduetan lan egiten da.

Abenduaren 31ra arte 10.073 tona hondakin tratatu dira eta ekoiztutako lixibiatuak guztira 32.691 tonakoa izan dira. Bestalde, 3.900 m²-ko aldi baterako itxiera egin da, lixibatuen ekoizpena murrizte aldera. Goizeko txandan lan egiten da, astelehenetik larunbatera bitartean.

Gordexolako hondakindegian, 2002ko urtarilaren erdialdetik aurrera hondakinak botatzeari utzi egin zitzaion. Ordutik aurrera, hondakinak Zallako Transferentzia Gunean uzten dira. Abenduaren 31ra arte 1.293 lixibiatu tona ekoiztu dira.

2004ko uztailaren erdialde inguruan utzi zitzaion hondakindegia horretan hondakinak botatzeari. Ordutik aurrera, aipatu hondakin horiek Berriatuko Transferentzia Gunean uzten dira. Abenduaren 31ra arte 1.198 lixibiatu tona sortu dira.

Zabalgardi Planta. 2011. urte-ekitaldian, Garbikerrek guztira 139.053 tona eramane ditu Zabalgardi Plantara.

2006ko apirilaren 26an "HHen Tratamenduari buruzko Hitzarmen Osagarri eta Gehigarriari buruzko Argibideak" deritzen agiri izenpetu zen. Agiri horren aplikazioak 2011. urtean GARBIKERri 347.312 euroko diru-sarrerak ekarri dizkio.

Halaber, GARBIKERrek Zabalgardiara egindako HHei buruzko ekarpenen enbase-atalaren balioaren kontzeptuagatik 498.211 euro jaso ditu eta horietatik 312.554 euro udaletxeetara igorri dira.

Aldi desberdinetan zehar, Planta ez zen aritu bere gaitasun betean, eta, egoera hori izanik 15.788 tona Igorreko hondakindegira bidali behar izan ziren, eta beste 461 tona Jatako ondakindegira.

7. Transferentzia Guneak

Durango, Gernika, Zalla eta Berriatuko transferentzia guneetan bildutako HHen azken tokia Zabalgardiako balorizazio energetikorako planta izan da, eta, geldialdi teknikoak izan direnean, Igorreko gordetegia.

En el vertedero de Igorre se han tratado hasta el 31 de diciembre 50.519 t. de las que 23.758 t pertenecen a Ayuntamientos de Gipuzkoa. El vertido de lixiviados mediante transporte con cisternas a la EDAR de Galindo, hasta el 31 de diciembre, ha supuesto 23.360 t. Se ha continuado con el aprovechamiento del biogás generado. Se ha realizado una clausura temporal de 4.100 m² al objeto de reducir la producción de lixiviados. Se trabaja en horario diurno, de lunes a sábados.

En el vertedero de Jata (Lemoiz) el residuo tratado hasta el 31 de diciembre ha sido de 10.073 t. y los lixiviados producidos han supuesto 32.691 t. Se ha realizado una clausura temporal de 3.900 m² al objeto de reducir la producción de lixiviados. Se trabaja en horario diurno, de lunes a sábados.

En el vertedero de Gordexola se dejó de verter residuos a mediados de enero de 2002. Desde entonces se depositan los residuos en la Planta de Transferencia de Zalla. Los lixiviados producidos, hasta el 31 de diciembre, ha supuesto 1.293 t

En el vertedero de Amoroto se dejó de verter residuos a mediados de julio de 2004. Desde entonces se depositan los residuos en la Planta de Transferencia de Berriatua. Los lixiviados producidos, hasta el 31 de diciembre, ha supuesto 1.198 t.

Planta de Zabalgardi. En 2011 las toneladas totales aportadas por Garbiker a la Planta Zabalgardi han sido 139.053 t.

Con fecha 26 de abril de 2006 se firmó un documento de "Aclaraciones al Contrato Adicional y Complementario al de Tratamiento de R.U.". La aplicación de éste último ha supuesto unos ingresos para GARBIKER de 347.312 euros en el año 2011.

Asimismo, GARBIKER ha ingresado 498.211 euros en concepto del valor de la fracción envase de los RU aportados a Zabalgardi, de los cuales se ha revertido a los ayuntamientos 312.554 euros.

Durante diferentes periodos, la Planta no operó a plena capacidad y en esa circunstancia 15.788 t tuvieron que ser desviadas al vertedero de Igorre y 461 t. al vertedero de Jata.

7. Plantas de Transferencia

El destino final del R.U. recogido en las plantas de transferencia de Durango, Gernika, Zalla y Berriatua ha sido la planta de valorización energética de Zabalgardi y el Depósito de Igorre en situaciones de paradas técnicas.

Durango. Durango, Berriz eta Zornotzako udalerriek eta Durangaldeko Mankomunitateak ere Durangoko Transferentziarako Gunea erabiltzen dute. Abenduaren 31ra arte, Durangoko Transferentzia Gunetik 21.730 tona kudeatu dira. Gau eta goizeko txandetan lan egiten da, astelehenetik larunbatera bitartean.

Gernika. Abenduaren 31ra arte, Gernikako Transferentziarako Gunetik 14.749 tona kudeatu dira. Gau eta eguneko txandetan lan egiten da, astelehenetik larunbatera bitartean.

Zalla. Abenduaren 31ra arte, Zallako Transferentzia Gunetik 10.519 tona kudeatu dira. Goizez lan egiten da, astelehenetik larunbatera.

Berriatua. Abenduaren 31ra arte, Berriatuko Transferentziarako Gunetik 8.518 tona kudeatu dira. Goizez lan egiten da, astelehenetik igandera bitartean.

Igorre. "Igorreko kontrol-egoitzaren birmoldaketa eta hondakinen transferentziarako gunearen eraikuntza proiektua" eta dagokion ikerketa geoteknikoa ere idatzita, 2011ko ekitaldian arau ordezkatzailen aldaketa zehatzari hasiera eman zaio. Lan horien inbertsioa Igorreko hondakindegian Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinen Tratamenduagatik lortutako diru-sarreraren bitartez finantzatzen da.

8. Hondakin geldoen tratamendua

Berrizko Hondakindegian, hondakinak botatzeari 2008ko urtarrilean utzi zitzaion.

Eusko Jaurlaritzak 2010eko abuztuan zigilatutako proiektuaren EIB-Erabateko Ingurumen Baimena eman ondoren eta behin lanen eskaintza eta esleipena egin ondoren, lanak 2011ko martxoan hasi ziren. Urte honetan zehar lana 2.326.680,51 eurotan egikaritu da, hau da, esleitutako zenbatekoaren %76,8.

Orkonera (Ortuella) Hondakindegian hondakinak isurtzeari 2008ko urtarrilean utzi zitzaion. Eusko Jaurlaritzak 2011ko maiatzaren 24ko Erabaki baten bitartez zigilatze proiektuari zegokion EIB-Erabateko Ingurumen Baimena eman zuen

Igorreko hondakin geldoen biltegian, behin Eusko Jaurlaritzatik eta Igorreko Udaletik zegozkien baimenak lortu ondoren, hondakinen isurketari 2009ko urriaren 7an hasiera eman zitzaion. Abenduaren 31ra arte tratatutako hondakin kopurua 71.553 tonakoa izan da, eta ekoiztutako lixibiatuak, berriz, 15.292 m³ izan dira.

Durango. Utilizan la Planta de Transferencia de Durango la Mancomunidad de Durango y los municipios de Durango, Berriz y Amorebieta. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Durango 21.730 t. Se trabaja en turno de noche y mañana, de lunes a sábado.

Gernika. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Gernika 14.749 t. Se trabaja en turno de mañana y noche, de lunes a sábado.

Zalla. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Zalla 10.519 t. Se trabaja en turno de mañana, de lunes a sábado.

Berriatua. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Berriatua 8.518 t. Se trabaja en turno de mañana, de lunes a domingo.

Igorre. Redactado el "proyecto constructivo de la planta de transferencia de residuos y remodelación del edificio de control de Igorre", así como el correspondiente estudio geotécnico, se ha iniciado durante 2011 la modificación puntual de normas subsidiarias. La inversión de esta obra viene financiada a través de los ingresos por el Tratamiento de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Gipuzkoa en el vertedero de Igorre.

8. Tratamiento de los Residuos Inertes

En el Depósito de Berriz se dejó de verter residuos en enero de 2008.

Emitida en agosto de 2010 por parte del Gobierno Vasco la AAI-Autorización Ambiental Integrada del proyecto de sellado y una vez procedido a la licitación y adjudicación de las obras, éstas se iniciaron en marzo de 2011. Durante este año se ha ejecutado obra por un importe de 2.326.680,51 euros, un 76,8 % del importe adjudicado.

En el Depósito de Orkonera (Ortuella) se dejó de verter residuos en septiembre de 2008. La AAI-Autorización Ambiental Integrada del proyecto de sellado fue emitida por el Gobierno Vasco mediante Resolución de 24 de mayo de 2011.

En el depósito de residuos Inertes de Igorre se iniciaron los vertidos de residuos el 7 de Octubre de 2009 una vez obtenidas todas las autorizaciones pertinentes por parte del Gobierno vasco y del ayuntamiento de Igorre. El residuo tratado hasta el 31 de diciembre ha sido de 71.553 t, y los lixiviados producidos han supuesto 15.292 m³.

9. HHak eta hondakin geldoak tratatzeko tarifak

2011. urtean, HHen tratamenduari dagokionez, Garbikerrek 63,42 euro/tonako tarifa edo kanona (BEZ gabe) fakturatu die udalei eta mankomunitateei (Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako prezio publikoa), eta 72,23 euro/tonakoa gainerako bezeroei (BEZ gabe). Gipuzkoatik datozen hondakinen prezioa 69,75 €/tonakoa da (BEZ gabe).

Hondakin geldoei dagokienez, 2011. urteko tarifa (BEZ gabe) 25,95 euro/tonakoa izan da, eta 72,10 euro/tonakoa, berriz, zati balioztagarriak dituzten hondakinentzat.

10. Aholkularitza udalei eta erakunde publikoei.

Hainbat kontsulta bideratu dira, bilerak egin dira eta bisitak egin dira udal eta herri erakundeetako teknikariek eta gainerako langileekin.

11. Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizaziorako jarduerak

Ikastetxeen, Ikastolen, Unibertsitateen, Erakundeen eta antzekoen ikustaldiak antolatu dira HHen hondakindegia kontrolatuak eta Garbiguneak ikustera joan daitezkeen, eta, horrenbestez, ikasleak euren irakasleekin izan ditugu bisitari.

Abenduaren 31ra arte, Bizkaiko Hezkuntza Zentroek 129 bisita egin dituzte, eta ikustalioetan 2.606 pertsonak hartu dute parte guztira.

Urteko 6.000 euroko ekarpena eginez, Haizelan Besaide, S. Coop. enpresaren babesarekin jarraitu da "Ingurubide, Iraunkortasunerako Baliabide Zentroa" proiektuan, etxebizitzaren edo lokalen baliabideetarako irtenbide eskuragarriak topatzeko, betiere, eskuragarritasun irizpideei jarraiki, lankide izateko.

12. Ikerketak eta saiakuntza arloak

2011. urtean hainbat saiakuntza eta datu-bilketa egin dira Igorre, Amoroto, Gordexola eta Jatako Hondakindegia Kontrolatuetan. Bestalde aldizkakotasun desberdinez, aldian-aldian, Hondakindegien barrualdeko eta kanpoaldeko uren analisiak egin dira.

GARBIKER INNOBASQUE BERRIKUNTZARAKO EUSKAL AGENTZIAko kide izaten jarraitu du.

9. Tarifas de tratamiento de R.U. e Inertes

Garbiker ha facturado en el año 2011 una tarifa o canon de tratamiento de R.U. (precio público aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia) a los municipios y mancomunidades de 63,42 euros/t. (I.V.A. no incluido) y a los demás clientes 72,23 euros/t. (I.V.A. no incluido). El precio de la tonelada para los residuos procedentes de Gipuzkoa es de 69,75 € (I.V.A. no incluido).

Las tarifas en el año 2011 (I.V.A. no incluido) para Residuos Inertes han sido de 25,95 euros/t. y 72,10 euros/t. para los residuos que contengan fracciones valorizables.

10. Asesoramiento a Municipios y Organismos Públicos

Se han resuelto consultas, mantenido reuniones y realizado visitas con técnicos y demás personal de municipios y organismos públicos.

11. Actividades de Sensibilización y Educación Ambiental

Se han programado visitas de Colegios, Ikastolas, Universidades, Instituciones, etc. a los Depósitos Controlados de R.U. y a los Garbigunes, con presencia de alumnos acompañados de sus profesores.

Hasta el 31 de diciembre se han realizado 129 visitas por parte de Centros educativos de Bizkaia con un total de 2.606 personas.

Se ha continuado con el patrocinio, con una aportación anual de 6.000 euros, con la empresa Haizelan Besaide, S. Coop para colaborar con el proyecto "Ingurubide, Centro de Recursos para la Sostenibilidad", soluciones disponibles de equipamiento de vivienda o local siguiendo criterios de disponibilidad.

12. Investigación y áreas experimentales

Durante 2011 se han realizado diversas experiencias y toma de datos en los Depósitos Controlados de Igorre, Amoroto, Gordexola y Jata. Se han efectuado también análisis con periodicidad variable de las aguas internas y externas de los Depósitos.

GARBIKER ha continuado como miembro de INNOBASQUE AGENCIA VASCA DE INNOVACIÓN.

Hondakindegia kontrolatuen eta Hondakinen birziklapenaren kudeaketari buruzko zenbait Kongresu, Jardunaldi eta Azoketara joan gara.

13. Bizkaiko Zabor Berziklategia, Sozietate Mugatua

Sozietate hau 1997. urteko maiatzaren 22an eratu zen, data horretan, Trienekens País Vasco (%60) eta Garbiker (%40) enpresek partaidetutakoa zela. 2006an, GARBIKERrek Sozietatearen Kapitalaren %10 eskuratu zuen, eta, beraz, une honetan akzioen %50 bere esku dago.

B.Z.B., S.L. ren enpresa xedea Zornotzan duen Gunean Ontzi Arinen Gaikako Bilketatik eratorritako materialen sailkapena eta banaketa egitean datza. Sozietate horretan, Garbikerrek Bizkaiko 108 udalerritan eta Arabako 5 udalerritan bildutako ontziak sailkatu dira, bai eta Bilboko eta Getxoko udaletan bildutakoak eta udal batzuek (Portugaleta, Barakaldo eta Laudio) egiten duten bilketa pneumatikoena ere.

Abenduaren 31ra arte, 15.658.603 hondakin kg tratatu dira, hots, 2010. urtean izandakoarekiko %0,43 gehiago.

14. Bizkaiko Txintxor Berziklategia, Sozietate Anonimoa

Garbikerrek, %50eko partaidetzarekin, eraikuntzatik eta eraispenetik etorritako hondakinak birziklatzea xede duen Bizkaiko Txintxor Berziklategia enpresa mistoa eratu zuen 2001eko apirilaren 25ean.

Eraikuntzatik eta eraispenetik etorritako hondakinak birziklatzeko Planta, Orkonera hondakindegia alboan dena, 2003ko ekainaren 24an zabaldu zen.

Abenduaren 31ra arte, eraikuntza eta eraispeneko 94.027 tona hondakin birziklatu dira.

15. Biogarbiker, Sozietate Anonimoa

2003ko urriaren 9an eratua, %50ean Garbiker eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) partaidetutakoa da. Sozietatearen xedea Jata eta Igorreko Hiri Hondakinen Hondakindegia Kontrolatuetako biogasaren aprobetxamendu energetikoa da, bai eta Berziklatuko (Orkonera-Ortuella) industria-nabeko estalki gaineko eguzki-energia fotovoltaikoaren instalazioarena ere.

Jatako hondakindegia kendu egin da, izan ere, sortutako biogas kopurua motorrak egokitasunez funtzionatzeko beharrezkoa dena baino murrizagoak izan baita.

Se ha asistido a diversos Congresos, Jornadas y Ferias relativas a la gestión de Depósitos controlados y Reciclaje de residuos.

13. Bizkaiko Zabor Berziklategia, Sociedad Limitada

Esta Sociedad se constituyó el 22 de mayo de 1997, estando participada a esa fecha por Trienekens País Vasco (60%) y Garbiker (40%). En 2006 GARBIKER adquirió el 10% del Capital Social, de tal manera que en este momento posee el 50% de las acciones.

El objeto social de B.Z.B., S.L. es la separación y clasificación del material procedente de la Recogida Selectiva de Envases Ligeros en la Planta que tiene en Amorebieta, en la cual se han clasificado los envases recogidos por Garbiker en 108 municipios vizcaínos y 5 alaveses, así como los recogidos por los ayuntamientos de Bilbao y Getxo y los recogidos por ayuntamientos con recogida neumática (Portugaleta, Barakaldo y Llodio).

Hasta el 31 de diciembre se han tratado 15.658.603 kg de residuos, con un incremento respecto a 2010 del 0,43 %.

14. Bizkaiko Txintxor Berziklategia, Sociedad Anónima

Garbiker, constituyó, con una participación del 50%, el 25 de abril de 2001 la empresa mixta Bizkaiko Txintxor Berziklategia, cuyo objeto social es el reciclaje de residuos de construcción y demolición.

La Planta de reciclaje de residuos de construcción y demolición, situada junto al Depósito de La Orkonera, fue inaugurada el 24 de junio de 2003.

Hasta el 31 de diciembre se han reciclado 94.027 t. de residuos de construcción y demolición.

15. Biogarbiker, Sociedad Anónima

Constituida el 9 de octubre de 2003, está participada al 50% por Garbiker y el Ente Vasco de la Energía (E.V.E.). Su objeto social es el aprovechamiento energético del biogás contenido en los Depósitos Controlados de Residuos Urbanos de Jata e Igorre así como de la instalación de energía solar fotovoltaica situada sobre la cubierta de la nave de Berziklatu (Orkonera-Ortuella).

La instalación del vertedero de Jata se ha suprimido debido a que las cantidades de biogas generado son menores que las necesarias para que funcione correctamente el motor.

Igorreko hondakindegian guztira 1.326.844 kW sortu dira.

Orkonerako eguzki-energia fotovoltaikoaren instalazioan 112.406 kW sortu dira, urte guztirako aurreikusitakoa baino %10 gehiago eta 2010ean izan zena baino %18 gehiago, hori guztia 2011an zehar izan ziren aldeko eguraldi-egoeraren ondorioz.

16. Berziklatu, Sozietate Mugatua

2005eko abenduaren 2an, %50eko partaidetzaz, Garbikerrek tamaina handiko hondakinen birziklapena egiteaz gain bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzeara eta gizarteratzea lortzea ere xede dituen Berziklatu enpresa mistoa sortu zuen. 2009an, %25eko partaidetza Bizkaiko Foru Aldundiari laga zitzaion.

Garbikerrek birziklapen planta bat eraiki du Ortuellan, eta birrinketa linea bat eta makineria mugikorra ere eskuratu ditu. Hori guztia, 25 urterako Berziklatu, S.L.ri. laga zaio.

Birziklapen planta 2007ko urriaren 9an inauguratu zen.

2011. urtean zehar, 18.585 tona kudeatu dira.

Tratamenduen guztien ehunekoak honako hauek izan dira:

Berrerabilera / Reutilización	0,47%
Birziklapena / Reciclaje	17,68%
Baterako sorkuntza / Cogeneración	62,53%
Balorizazioa/ Valorización	19,23%

17. Beste jarduera batzuk

Goian azaldutako jardueren osagarri gisa, beste batzuk ere antolatu dira. Nabarmenenak honako hauek dira:

HHen eta hondakin geldoen Hondakindegietan, Transferentzia guneeetan eta Garbiguneetan hobekuntza lanen eta beste zenbait proiekturen betearazpenaren jarraipena.

En el vertedero de Igorre se ha generado 1.326.844 kW.

En la instalación de energía solar fotovoltaica de Orkoner se han generado 112.406 kWh, un 10% más de la estimada para todo el año y un 18% más de la habida en el año 2010, como consecuencia principalmente de las condiciones meteorológicas favorables habidas durante 2011.

Berziklatu, Sociedad Limitada

Garbiker, constituyó, con una participación del 50%, el 2 de diciembre de 2005 la empresa mixta Berziklatu, cuyo objeto social es el reciclaje de residuos voluminosos y la inserción sociolaboral de personas en riesgo de exclusión social. En 2009 se cedió un 25% de participación a la Diputación Foral de Bizkaia

Garbiker construyó la planta de reciclaje, situada en Ortuella y adquirido la línea de trituración y maquinaria móvil. Todo ello ha sido cedido por 25 años a Berziklatu S.L.

La planta de reciclaje se inauguró el 9 de octubre de 2007.

Durante 2011 se han gestionado 18.585 toneladas.

Los porcentajes de tratamiento han sido los siguientes:

17. Otras Actividades

Se han complementado las actividades reseñadas anteriormente con otras, entre las que destacan las siguientes:

Seguimiento de la ejecución de obras de mejora en Depósitos de R.U. e Inertes, Plantas de Transferencia y Garbigunes y de diversos proyectos.

Proiektu eta Lanak Zuzentzea:

Igorre eta Jatako hondakindegien behin behineko zatikako itxiera lanen eta beste lan txikiago batzuen betearazpenaren zuzendaritza.

Bisita teknikoak Birziklapeneko Instalazio eta Plantetara.

Garbikerrek herri lanetarako, laguntza teknikorako, horniduretarako eta ibilgailu/makineria eskuratzeko lehiaketa publikoen deialdiak egitean beharrezkoak diren baldintza-orri teknikoak idaztea. Esleipen Txostenak idaztea.

Garbikerren jarduera-eremuko gaiei buruzko zenbait azokatan parte hartzea.

18. Garbikerren bulego nagusia

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumenerako Foru Sailak berariaz aginduta, "Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri Hondakinen Sorkuntzaren Behatokia" eratu da.

Garbikerren web orrialdearen (garbiker.bizkaia.net) eguneratze lanarekin jarraitu dugu.

Garbikerreko langileek egindako lanen gaineko "Laneko Arriskuen Ebaluazioa" delakoan sakondu da. Halaber, prebentziorako dugun kanpo zerbitzuari eutsi egin zaio.

Garbikerrek kudeatutako Hondakindegia aktiboetarako Ingurumen-Erantzukizunerako polizak mantendu dira.

19. 2012rako helburu eta egingarri diren ekintzak

Bizkaiko 2005-2016 Hiri Hondakinen II. Erabateko Kudeaketa Plangintzaren garapenean Ingurumenerako Foru Sailarekin elkarlanera bideratuta egongo da Garbikerren jarduna, eta arlo horretan zeregin garrantzitsua izango du.

Ondoko garbiguneak kudeatuko dira: Basauri, Getxo, Zalla, Derio, Markina, Gernika, Zornotza-Etxano, Arteaga, Santurtzi, Sopelana, Mungia, Karrantza, Erandio, Güenes, Amoroto, Durango, Sestao, Barakaldo, Bermeo, Muskiz, Orduña, Bakio eta Igorre.

Aurrera jarraituko da "Zerbitzu Gutuna"-ren ezarpenarekin, asebetetzeari buruzko inkestekin eta publizitate kanpaineekin, betiere, beharrezkoa den egiaztatzea lortzeko asmoz.

Dirección de Proyectos y Obras:

Dirección de la ejecución de las obras de clausura temporal parcial en los vertederos de Igorre y Jata y otras obras menores.

Visitas técnicas a Instalaciones y Plantas de Reciclaje.

Redacción de los pliegos técnicos necesarios para convocar los concursos públicos de obra, asistencia técnica, adquisición de suministro, vehículos y maquinaria, convocados por Garbiker. Redacción de los Informes de adjudicación.

Asistencia a varias ferias relacionadas con la actividad de Garbiker.

18. Oficina Central de Garbiker

Se ha realizado el "Observatorio de Generación de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia" por encomienda del Dpto. de Medio Ambiente de la D.F.B.

Se ha continuado con la renovación de la página web de Garbiker: garbiker.bizkaia.net.

Se ha profundizado en la "Evaluación de Riesgos Laborales" de los diferentes trabajos desarrollados por el personal de Garbiker. Asimismo se ha mantenido el servicio externo de prevención.

Se han mantenido las pólizas de Responsabilidad Medioambiental para los Depósitos en activo gestionados por Garbiker.

19. Objetivos y acciones a realizar en el año 2012

La actuación de Garbiker estará orientada a la colaboración con el Departamento Foral de Medio Ambiente en el desarrollo del II Plan Integral de Gestión de R.U. de Bizkaia 2005-2016, en el cual desempeñará un papel de referencia.

Se gestionarán los Garbigunes de Basauri, Getxo, Zalla, Derio, Markina, Gernika, Amorebieta, Gautegiz-Arteaga, Santurtzi, Sopelana, Mungia, Carranza, Erandio, Güenes, Amoroto, Durango, Sestao, Barakaldo, Bermeo, Muskiz, Orduña, Bakio e Igorre.

Se continuará con la implantación de la "Carta de Servicios", encuestas de satisfacción y campañas publicitarias, de cara a obtener la acreditación correspondiente.

Bizkaian 3. edukiontzia (ontziak eta bilgarriak) bilketa egingo da bizkaitar 108 udalerritan eta 5 udalerrri arabarretan, zerbitzua, guztira, 698.147 biztanleri baino gehiagori emanez.

2011ko martxoaren 1ean ofizialki inauguratutako hondakin organikoak konpostatzeko Planta kudeatuko da.

TMB Tratamendu Mekaniko Biologikorako Plantari buruz, 2012an zehar nabeko lanei eta ekipoen kokapenari amaiera emango zaie, ondoren, abenduan, materialekin abiarazte frogei hasiera eman ahal izateko.

"Bizkaiko Jatorrizko Lurraldeko Hiri Hondakinen Sorkuntzarako Behatokia" egiteratuko da, B.F.Ako Ingurumenerako Sailak horrela eskatuta.

Ondokoak kudeatu eta ustiatuko dira: Arratia (Igorre) eta Uribe (Jata) Hondakindegia Kontrolatuak; Durango, Gernika, Zalla eta Berriatuko Transferentzia Guneak, eta Igorre II-ko Hondakin Geldoen Hondakindegia. 2012. urtean, Garbikerrek 66,59 euro/tonako (BEZa kanpo) tarifa edo kanona fakturatuko die udalerriri eta mankomunitateei, HHen tratamenduagatik; Gipuzkoatik datozen hondakinentzat, 73,25/tonako (BEZa kanpo). Gainerako bezeroei, HHen tratamenduagatik 73,96o/tonako kanon edo tarifa fakturatuko die (BEZa kanpo), eta, Hondakin Geldoei dagokienez, 26,57o/tonako (BEZa kanpo). Hondakin geldoen hondakindegietako hondakin nahastuaren kanona 73,83okoa izango da tonako. KONPOSTEGIRA joan behar duten hondakin konposagarrien kanona edo tarifa 46,01o/tonakoa izango da (BEZa kanpo), eta Gernikako transferentzia instalazioan jaso eta BERZIKLATUra eraman beharreko tamaina handiko hondakinena 47,74o/tonakoa izango da (BEZa kanpo).

Gordexolako eta Amorotoko hondakindegia kontrolatuak mantentzeko lanekin aurrera jarraituko da, abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak hondakindegia itxi eta hurrengo 30 urteetan zehar mantenimendu lanak egiten jarraitzera behartzen baitu.

Hondakindegia guztietan egonkortasun eta ingurumen kontrolak eginez jarraituko dugu.

Aholkularitza Udaletxei eta Erakunde Publikoei ere.

Programatutako ikustaldiak Hondakindegia, Garbigune eta Transferentzia Guneetara.

Se efectuará la recogida en Bizkaia del 3^{er} contenedor (envases y embalajes) en 108 municipios vizcaínos y 5 alaveses, dando servicio a unos 698.147 habitantes.

Se gestionará la Planta de compostaje de residuos orgánicos, inaugurada oficialmente el 1 de marzo de 2011.

Con respecto a la Planta de Tratamiento Mecánico-Biológico, TMB, durante 2012 se finalizarán las obras de la nave y la colocación de equipos para iniciar las pruebas de puesta en marcha con material en diciembre.

Se realizará el "Observatorio de Generación de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia" por encomienda del Dpto. de Medio Ambiente de la D.F.B.

Se realizará la gestión y explotación de los Depósitos Controlados de Arratia (Igorre) y Uribe (Jata), las Plantas de Transferencia de Durango, Gernika, Zalla y Berriatua y el Depósito de Inertes de Igorre II. Garbiker facturará en el año 2012 a los municipios y mancomunidades una tarifa o canon de tratamiento de R.U. de 66,59 euros/t (I.V.A. no incluido), para residuos procedentes de Gipuzkoa de 73,25 euros/t (IVA no incluido). Al resto de clientes facturará una tarifa o canon de tratamiento de R.U. de 73,96 euros/t (I.V.A. no incluido) y para Residuo Inerte 26,57 euros/t (I.V.A. no incluido). El residuo mezcla en vertederos de inertes tendrá un canon de 73,83 euros/tonelada. La tarifa o canon de tratamiento de Residuos composables con destino a KONPOSTEGIA será de 46,01 euros/t (I.V.A. no incluido), y la de los residuos voluminosos, recogidos en la planta de transferencia de Gernika, y con destino a BERZIKLATU, será de 47,74 euros/t (I.V.A. no incluido).

Se seguirán realizando las labores de mantenimiento en los Depósitos controlados de Gordexola y Amoroto de acuerdo al R.D. 1481/2001 de 27 de diciembre, que obliga a realizar labores de mantenimiento durante los siguientes 30 años a la clausura de los Depósitos.

Se continuará con los controles de estabilidad y medioambientales en todos los Vertederos.

Asesoramiento a Municipios y Organismos Públicos.

Visitas programadas a Depósitos, Garbigunes y Plantas de Transferencia.

Garbikerren jarduera-eremuarekin zerikusia duten Kongresu eta Azoketara joatea.

"Ingurubide, Iraunkortasunerako Baliabide Zentroa" proiektuari buruzko babesa emanaz jarraituko da.

2012. urtean, Zabalgardi, s.a. ren jabetzakoa den HHen Balorizazio Energetikoko Plantak etengabe lanean jarraituko du, eta, horren ondorioz, Garbikerren eta Zabalgardiren artean 2001eko ekainaren 15ean izenpetutako kontratuaz gain 2004ko abuztuaren 24an izenpetutako kontratu gehigarria eta 2006ko apirileko Argibideetarako agiria ere aplikatuko dira.

Asistencia a Congresos y Ferias relacionadas con la actividad de Garbiker.

Se continuará con el patrocinio del proyecto "Ingurubide, Centro de Recursos para la Sostenibilidad".

En 2012 continuará en servicio de forma continuada la Planta de Valorización Energética de R.U. propiedad de Zabalgardi, s.a., y, como consecuencia, se aplicará tanto el contrato suscrito entre Garbiker y Zabalgardi el 15 de junio de 2001, como el contrato adicional firmado el 24 de agosto de 2004 y el documento de Aclaraciones de abril de 2006.